BULTZATU KIROLA, EGIN ZAITEZ MEDENA

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN KIROL MEZENASGOA ETA HAREN ZERGA-PIZGARRIAK ARAUTZEN DITUEN MAIATZAREN 24KO 2/2023 LEGEGINTZAKO FORU DEKRETUARI BURUZKO OHIKO GALDE-ERANTZUNAK

1. Zer da kirol mezenasgoa eta nola dago arautua Nafarroan?

Mezenasgoa pertsona edo erakunde batek irabazi asmorik gabeko kirol erakundeei, fundazioei edo kirolariei kirol jarduerak egiteko ematen dien finantza laguntza edo laguntza materiala da. Nafarroan, 2/2023 Legegintzako Foru Dekretuak, maiatzaren 24koak, arautzen du, zeinaren bidez erakunde horientzako zerga-araubide berezia eta mezenasgoaren zerga-pizgarriak ezartzen baitira (2/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren 39-45 arteko artikuluak), bai eta 13/2023 Foru Aginduak ere, otsailaren 15ekoak, zeinaren bidez xedatzen baita kirol proiektu eta jarduerak interes sozialekotzat deklaratzeko eskaerak egiteko prozedura, kirol mezenasgoaren ondorioetarako.

2. Nork eskatzen ahal du MEDENA bereizgarria?

- Irabazi-asmorik gabeko kirol entitateek, Nafarroako Kirolaren Erregistroan inskribatuek.
- Nafarroan helbideratutako fundazioek, haien xedeen artean Nafarroako kirola sustatu eta garatzea dutenek.
- Nafarroako kirol federazio batean afiliatuta egon eta egoitza fiskala Nafarroan duten **Nafarroako kirolariek**.
- Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta Nafarroako toki entitateek, bai eta haien menpeko erakunde autonomo eta fundazio publikoek ere.
- Nafarroan ezarrita dauden unibertsitateek.

MEDENA
MEZENAZGO DEPORTE NAVARRA
MEZENASGOA KIROLA NAFARROA

Gizarte intereseko deklarazioaren xede diren kirol proiektu eta jarduerak gauzatzean inplikatuta dauden pertsonek, baldin eta Nafarroan Kirol Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legean aitortutako kirol lanbideetako bat egiten badute, Foru Lege horretan eskatutako lanbide kualifikazioak behar izanen dituzte.

3. Zergatik izan MEDENA?

MEDENA bereizgarriak interes sozialekotzat jotzen zaitu, eta Nafarroan kirolarekin konprometituta eta arduratsu dagoen entitate edo kirolari gisa kalifikatzen zaitu.

Gainera, zure MEDENA proiektuari edo jarduerari ekarpenak egiten dizkioten enpresek edo pertsonek abantaila fiskalak izanen dituzte.

Horrek guztiak laguntzen ahal du zure jarduera edo kirol proiektua garatzea eta/edo haztea ahalbidetzeko dohaintza eta lankidetza gehiago erakartzen, Nafarroan kirola sustatzen jarraitzeko.

4. Zer proiektuk eskuratzen ahal dute MEDENA bereizgarria?

- Kirol jarduerek, prestakuntza, sustapen, osasun eta ikerketakoek, kirol arloan.
- Kirol jarduerek, beharrizan bereziak dituzten pertsonei bideratuek, haien artean hartuta adindunak, sedentarismotik eta bizimodutik eratorritako patologiak dituztenak, desgaitasuna dutenak, etorkinak eta kolektibo behartsuak.
- Kirol jarduerek eta programek, oinarrizko kirola eta eskola-adinean sustatzera bideratuek.
- Kirola sustatzeko, ingurune naturala zaindu eta gordetzeko eta Nafarroako Foru Komunitateko Bideen Sarea lehengoratu eta hobetzeko jarduerek.
- Kirol autoktono edo tradizionalak berreskuratu eta sustatzeko jarduerek.

EZ dira gizarte intereseko deklaratzen ahalko, kirol mezenasgoaren ondorioetarako, lehiaketa federatuetan parte hartzeko kirol jarduerak.

5. Noiz eta nola eskatzen da MEDENA?

Gizarte intereseko deklaraziorako eskabideak aurkezteko epea bi alditan eginen da: martxoaren 1etik 31ra arte eta urriaren 1etik 31ra arte.

6. Non ikusten ahal dut aurkeztu beharreko dokumentazioa eta izapideak ezagutu?

MEDENA
MECENAZGO DEPORTE NAVARRA
MEZENASGOA KIROLA NAFARROA

Nafarroako Gobernuaren Interneteko Atariko Tramiteen Katalogoaren bidez: https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/zeinare-bidez-xedaten-baita-kirol-proiektu-eta-jarduerak-interes-sozialekotzat-deklaratzeko-eskaerak-egiteko-prozedura-kirol-mezenasgoaren-ondorietarako

7. Zein da eskaera ebazteko epea?

Nafarroako Gobernuak MEDENA deklarazioa eman edo ukatzen du Nafarroako Kirolaren Kontseiluan eratutako batzordearen proposamena aintzat hartuta, eskaera aurkeztu eta hiru hilabeteko epean. Epe hori bukatutakoan berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, interesdunek eskaerak onartu direla ulertuko dute.

MEDENA proiektu eta jarduera guztiak https://www.deportenavarra.es/eu/medena-proiektuak webgunean egonen dira ikusgai, kontsultatzeko eta ekarpenak jasotzeko.

8. Zer konpromiso hartuko ditut MEDENA bihurtzean?

MEDENA deklarazioak betebehar hauek dakartza berekin:

- Mezenasgoaren ekarpenak MEDENA ekimenak gauzatzera bideratzea, azaldutako moduan eginez.
- Mezenas guztiei ekarpenen ziurtagiriak ematea eta horien berri ematea Nafarroako Ogasunari (182. eredua).
- Proiektua gauzatu dela frogatzea amaierako memoria baten bitartez.

9. Noiz eta nola entregatu behar dut amaierako memoria?

Bi hilabeteko epean, amaitzen duzunetik zenbatzen hasita, Kirola eta Jarduera Fisikoa Sustatzeko Zuzendariordetza erregistro elektroniko orokorraren helbidera bukaerako memoria bat bidalita, eta bertan proiektuaren gauzatzea, helburuen betetze maila eta lortutako emaitzak. Memorian mezenasgo modalitate guztien bidez jasotako ekarpenak zehaztu beharko dira, eta horiek proiektua gauzatzeari begira izan duten eragina ebaluatuko da.

Urtebetez baino gehiagoz luzatzen diren proiektu edo jardueren kasuan, urteko memoria aurkeztuko zaio Kirola eta Jarduera Fisikoa Sustatzeko Zuzendariordetzari erregistro elektroniko orokorraren bitartez aurreko letran ezarritakoarekin bat, hurrengo urteko martxoaren 1a baino lehen.

10. MEDENA bereizgarria betiko al da?

Ez, "Eskabide inprimakia" dokumentuan, bereizgarria eskatu nahi diozun proiektuaren "Gauzatze epea" adierazteko atal bat aurkituko duzu. Eskaera onartuz gero, MEDENA bereizgarria indarrean egonen da proiektuaren gauzatze epean zehar soilik.

MEDENA
MEZENAZGO DEPORTE NAVARRA
MEZENASGOA KIROLA NAFARROA

"Eredu-programekin" salbuespenak egiten ahal dira.

11. Zer da "eredu-programa" bat eta zenbat denbora izaten ahalko da MEDENA bereizgarria?

Programa horiek hurrengo urteetan antzeko jarduerak egiten dituzten proiektuei dagozkie. Adibidez: interes sozialeko kirol ekitaldia, urtero egiten dena.

Bigarren urtetik aurrera, hau da, MEDENA bereizgarria eskuratzeko 2. eskaera aurkeztean, Nafarroako Kirolaren Kontseiluaren Mezenasgorako Batzordeak gehienez 5 urterako ematen ahal du bereizgarria.

12. Urtebeterako baino gehiagorako bereizgarria lortuz gero, urtero aurkeztu behar al dut bukaerako memoria?

Bai. MEDENA bereizgarria urtebetetik gorako eperako ematen bazaizu ere (gehienez 5 urterako), eta aldi horretan eskaera urtean behin egin behar ez baduzu, urtero amaierako memoria aurkeztu behar izanen duzu nahitaez, bereizgarria indarrean mantentzeko.

13. Nola laguntzen ahal dute mezenasek zure MEDENA proiektua garatzen?

Badira hiru bide Nafarroako kirola garatzen laguntzeko:

- **DOHAINTZA**: dirua, ondasunak edo eskubideak ematea, edo zerbitzuak dohainik egitea.
- **ERABILERA MAILEGUAK EDO KOMODATUAK**: esate baterako, lokalak dohainik lagatzea kirol jarduerak edo proiektuak egiteko.
- **LANKIDETZA HITZARMENAK**: ekarpenak egiten dituztenen eta jasotzen dituztenen artean; jasotzaileek mezenasen partaidetzaren zabalkundea egiteko konpromisoa hartzen dute laguntzaren truke.

14. Zer dokumentazio eman behar diet mezenasei haiek dohaintza justifikatzeko?

Erakunde edo pertsona onuradun gisa, dohaintza ziurtagiri bat jaulki behar duzu, honako datu hauek jasotzeko, gutxienez: enpresa edo pertsona emailearen eta dohaintza-hartzailearen datuak, dohaintza-hartzailearen onuradun izaera, data, dohaintzaren zenbatekoa edo balorazioa, dohaintzari emanen zaion xedea eta izaera ezeztaezinaren berariazko aipamena.

MEDENA
MECENAZGO DEPORTE NAVARRA
MEZENASGOA KIROLA NAFARROA

Diruzkoak ez diren dohaintzen kasuan, agiri publiko baten edo beste zinezko dokumentu baten bidez justifikatu behar dira. Dokumentu hori ziurtagiriaren parte izanen da.

15. Zer dohaintza mota egiten ahal dituzte mezenas gisa?

Mezenasek zenbait dohaintza mota egiten ahal dituzte, besteak beste:

- Eskudirutan egindako dohaintzak: Dirua zuzenean erakunde onuradunaren kontura transferitzea.
- Gauzazko dohaintzak: Ondasun materialak entregatzea, hala nola ekipoak, elikagaiak, arropa, etab.

- Zerbitzu dohaintzak: Zerbitzu profesionalak doan edo kostu txikiaren truke ematea.
- Eskubide dohaintzak: Egile eskubideak, patenteak edo jabetza intelektualeko beste eskubide batzuk lagatzea.

Dohaintza mota bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta dokumentazio espezifikoa eskatzen ahal dute kenkari fiskala izateko.

Dohaintzak eskuzabaltasun asmoz egin behar dira (hau da, inolako kontraprestaziorik lortzeko asmorik gabe), modu ezeztaezin eta baldintzarik gabe, MEDENA kirol proiektu, jarduera edo programa bat egiteko.

16. Nola baloratzen da doako zerbitzu bat ematea?

Egindako gastuen kostua soilik hartzen da kontuan, zuzenak zein zeharkakoak izan (eskulana, materialak, energia, erregaia). Ez da inola ere kontuan izanen mozkin marjina.

17. Dohaintzatzat hartzen al da bazkideek edo afiliatuek ekarpenak egitea erakunde onuradun bati?

Soilik ekarpena erabiltzen bada interes sozialekotzat aitortutako proiektua edo jarduera, hau da, MEDENA, egiteko, eta ez badu loturarik oraingo edo etorkizuneko prestazio bat jasotzeko eskubidearekin.

18. Zer da erabilera edo komodatua eta nola aplikatzen da mezenasgoan?

Erabilera edo komodatua kontratu bat da, zeinaren bidez pertsona batek (komodatzaileak) doan lagatzen baitio beste bati (komodatudunari) ondasun baten erabilera, eta denbora jakin baten ondotik itzuli egin behar du. Mezenasgoaren testuinguruan, baliteke higiezinak, ibilgailuak, ekipoak eta abar irabazi asmorik gabeko erakunde bati aldi baterako lagatzea, hark bere jarduerak egin ditzan. Dohaintza mota horrek ere izanen du kenkari fiskala, betiere legezko baldintzak betetzen badira eta behar bezala dokumentatzen bada (2/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren 43. artikulua).

MEDENA
MECENAZGO DEPORTE NAVARRA
MEZENASGOA KIROLA NAFARROA

19. Zer da lankidetza-hitzarmen bat?

Interes orokorreko jardueretarako lankidetza-hitzarmentzat hartzen da MEDENA entitateek, beren helburuak betetzeko laguntza ekonomiko baten truke, izenpetzen dutena, idatziz konpromisoa hartuta laguntzailearen parte-hartzea zabaltzeko. (2/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren 22 artikulua).

Hitzarmen mota horrek ekarpen ekonomikoak, gauzazko dohaintzak edo zerbitzuak hartzen ahal ditu barne, eta MEDENA erakundeari laguntzen ahal dio bere proiektuak eta jarduerak finantzatzen.

20. Lankidetza-hitzarmena babesletza al da?

Ez, lankidetza-hitzarmenean laguntza ekonomikoa eskuzabaltasunez ematen da, kontraprestazio bat lortzeko asmorik gabe. Babesletza, aldiz, kostu bidezko publizitate kontratuaren modalitate bat da, eta, horren bidez, prezio baten truke, kontraprestazio bat lortzen da, eta babeslearen produktuen eta zerbitzuen publizitatean laguntzean datza.

21. Zer abantaila fiskal ditu kirol mezenasgoak?

Pertsona fisikoak:

PFEZaren kuotaren kenkaria: % 80, emandako lehendabiziko 250 euroetan, eta % 40, gainerakoan.

Pertsona juridikoak:

a) Enpresa batek mezenasgoari ekarpen bat egiten dionean, zenbateko hori gastu gisa kentzen ahal du Sozietateen gaineko Zergaren aitorpenean. Dena den, badaude mugak:

1. Zerga-oinarriaren % 30: Dohaintzak ezin du zerga-oinarriaren % 30 gainditu (diru-sarreren guztizkoa ken gastuak).

2. Negozio zifraren % 0,3: Bestela, dohaintzak ezin du negozio zifraren % 0,3 gainditu (salmentak guztira).

MEDENA
MEZENAZGO DEPORTE NAVARRA
MEZENASGOA KIROLA NAFARROA

Oharra: Kenkari hori ezin da erabili zerga-oinarri negatiboa sortzeko (hau da, ezin da kendu enpresak galera fiskalekin bukatzeko beste).

b) Sozietateen gaineko Zergaren kuotako kenkari gehigarria:

Gainera, enpresak ekarpenaren balioaren % 20 zuzenean kentzen ahal du sozietateen gaineko zergaren kuota likidotik.

Mezenasgo adibidea:

Egoitza Nafarroan duen enpresa batek urtean zehar 4.000 euro eman dizkio kirol mezenasgorako interes sozialekotzat jotako erakunde bati, eta

Sozietateen gaineko Zergaren honako aitorpen hau aurkeztu du: (Ikus hurrengo orrialdea)

MEDENA
MECENAZGO DEPORTE NAVARRA
MEZENASGOA KIROLA NAFARROA

% 28ko zerga-tasadun adibidea.

DIRU-SARRERAK	Mezenasgorik GABE	4.000 €-ko MEZENASGOAREKIN
Salmentak	65.000 €	65.000 €
Finantza sarrerak	2.100 €	2.100 €
GUZTIRA	67.100	67.100

GASTUAK			
Erosketak	43.200 €	43.200 €	
Zenbait gastu	7.800 €	7.800 €	
Kirol mezenasgoaren dohaintza	Dohaintzarik gabe	4.000 €	*Ezin da karga aplikatu*
GUZTIRA	51.000 €	55.000 €	

DOHAINTZAGATIKO KENKARIA % 20	0 €	*800 €*

Zerga-oinarria	16.100 €	12.100 €
Karga-tasa	% 28	% 28
Ordaindu beharreko kuota osoa	4.508 €	3.388 €

Ordaindu beharreko kuota osoaren aldea: 1.120 €

800 € + 1.120 € = 1.920 €
Dohaintzagatiko kenkaria, guztira (*)

Dohaintzaren kostua
4.000 € - 1.920 €=
2.080 €

(*) Betiere enpresak betetzen baditu zergak arintzeko baldintza ekonomikoak.

MEDENA
MECENAZGO DEPORTE NAVARRA
MEZENASGOA KIROLA NAFARROA

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

Instituto Navarro del Deporte y de la Actividad Física Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua

MEDENA

MECENAZGO DEPORTE NAVARRA

MEZENASGOA KIROLA NAFARROA

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

Instituto Navarro del Deporte y de la Actividad Física Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua

MEDENA

MECENAZGO DEPORTE NAVARRA

MEZENASGOA KIROLA NAFARROA